

On Manuel Lekuona

URRUTIA, Andres
Euskaltzainburua

Arratsalde on / Gabon guztioi.

Mila esker Oiartzungo Udalari eta herriari, on Manuelen etxekoei eta hona hurreratu zareten guztioi, gaur zuekin egoteko gonbita luzatu diozue-lako Euskaltzaindiari. Gonbita onartu eta lanean aritu da Euskaltzaindiaren Zuzendaritza, arratsalde osoan, Oiartzungo herriko etxean.

Ekitaldira sartu aurretik, kazetari batek bi galdera egin dizkit. Taxuzko eta egoki ikusten ditut biak, eta horrexegatik berari emandako erantzuna zuekin partekatuko dut.

Lehena izan da ea nor zen niretzat on Manuel Lekuona. Horretarako hiru data gogoratu dizkiot galdera egileari: hasteko, 1918-1919, Eusko Ikaskuntzaren sorrerarena eta bertatik etorri zen Euskaltzaindiarena, orobat, Gasteizko apaiz-mintegia eta bertan euskara suspertzeko ahaleginak..., hor zen on Manuel. Hasian hasi, bigarrena da gerra ondoko urte latzetan eta ilunpean euskarari eman beharreko arnasa..., hor zen on Manuel, erbestean bazen ere. Hirugarrena datorkigu bere lanaren bidez, lan hori anitza, euskara eta euskal kulturaren aldetik arlo asko ukitu zituena, hala nola, ahozko literatura, historia, etnografia, euskarologia... hitz batez esateko, poligrafo euskaldun eta euskaltzale baten ahalegin gogotsuak.

Nik neuk ere, han ikasi nituen hainbat gai, besteak beste, zuzenbideari lotuak, dela *ondazilegiaren* kontzeptua, dela Gipuzkoako Foru Zuzenbidearen ibilbidea.

Euskera. 2012, 57, 1-2. 75-76. Bilbo
ISSN 0210-1564

Hitz gutxitan esateko, euskal kulturaren eremuko eragile sutsua eta aparta, hogeigarren mendea markatu zuena euskaltzaletasunaren aldetik. Gogoan dut berak egindako Axularren *Geroren* berrargitalpena, gutariko askorentzat erabilgarri izan zena.

On Manuel, era berean, euskaltzainburu izan genuen eta haren presentzia nabarmena da euskaltzainok hilabete oro batzen garen aretoan, hantxe baitago haren giza irudi irribarretsua, beste euskaltzainburuekin batera.

Irudi hori sarritan izaten da niretzat ere atsedeen-iturria, eztabaida sutsuen aldi berori baita babes segurua, irribarre txiki horrekin, Euskaltzaindiaren eta, oro har, euskal kulturaren geroa bermatzeko eta ziurtatzeko eta, jakina, euskaltzainburu den honi dagokiona betetzeko, hau da, gure bilerak bideratzea.